


Bilduko udal taldeak Udal honetako Osoko Bilkurak bere egin dezan
Oñatiko Ernai Gazte Antolakundeak eskatuta eta bere izenean, honoko mozioa
aurkezten du:

	OÑATIKO UDALA
	Erregistro Data
2013 APR 23	
SARRERA	IRTEERA
796	

Apirilaren 9tik 19ra, aurrekaririk gabeko ekimen solidario bat burutu zen Donostian. Ekimenaren helburua, beraien militantzia politikoagatik 6 urteko espetxe zigorrera kondenatuak izan ziren zortzi donostiar gazteei babesa ematea eta haien aurkako sententzia politiko hori salatzea zen. Horretarako, sententzia horren aurka zeuden pertsona eta eragile politiko, sozial eta sindikal guztiei bertan parte-hartzeko dei egin zitzaien, guztion artean herri harresi sendo bat eraikitzeko.

Deialdi horrek jaso zuen erantzuna, optimistek imajinatu zezaketena baino handiagoa izan zen. Egunetik egunera jende gehiago batuz joan zen, apirilaren 19an 1000 pertsona inguru aurkitzen zirelarik bertan. Honetaz gain, amaigabeak ziren nazioartetik iristen ziren atxikimendu eta elkartasun mezuak, eta plano politikoan ere izugarritzko garrantzia izatea lortu zuen.

Guzti hori ikusita, une batez bazirudien tankera horretako sententzien aurrean inflexio puntu bat markatuko zela. Askegunean argi geratu zen egunez egun gero eta jende gehiago ari dela tankera honetako epaiketa politikoen aurka agertzen, argi utziz tankera honetako sententziek bizi dugun garai berri hau oztopatu besterik ez dutela egiten. Euskal gizarteak gatazkaren konponbidea eta bakea behar ditu, eta horren alde lan egiteko konpromisoa hartzen ari da.

Gune horretan elkartu zen jende kopuru ikaragarriak eta aldarrikapen horrek hartu zuen dimentsioak, ordea, kezkatu egin zituzten agintari politiko jakin batzuk, eta, gehiagora iritsi aurretik, gune hori desegiteko beharra ikusi zuten. Apirilaren 19ko goizean, azken urteetako dispositibo polizial handienak inguratu zuen askegunea, eta gazte horiek atxilotzeari ekin zion.

Horretara zihoazela, ordea, 1000 pertsona inguruz osaturiko herri harresiarekin egin zuten topo, eta guzti horiek paretik kentzeari ekin zioten. Kanpora begira ematen zuten itxura zaintzeko, ez zituzten gomazko pelletak erabili, eta porrak ere ahalik eta gutxien erabili zituzten. Horrek, ordea, ez du esan nahi bortizkeria erabiltzeari uko egin ziotenik. Asko izan ziren zaurituak izan ziren pertsonak, eta horretaz gain guztiek jasan behar izan zituzten kolpeak, irainak eta mehatxuak. Azkenean, askegunea suntsituta geratu zen eta gazteak espetxeratu zituzten. Atxiloteten ostean ere istiluek jarraitu egin zuten, eta pertsona gehiago izan ziren jipoituak.


Hau ez zen, ordea, Ertzaintzaren oldarraldi bakarra izan. Egun batzuk lehenago, apirilaren 10ean, Ekaitz de Ibero atxilotzera joan zirenean, poliziaren jarrera are

basatiagoa izan zen. Bertan aurkitzen ziren pertsonak inongo erreparorik gabe jipoitu zituzten, hainbat pertsonak larriki zaurituta amaitu zutelarik.

Gertaera guzti horien emaitza, historiara pasatuko den elkartasun gune bat, Euskal Herrian ikustera hain ohituta gauden argazki batean bihurtzea izan zen: karga polizial basatiak, atxiloketak eta espetxeratzeak. Eskubide zibil eta politikoen alde aurrerapauso historiko bat emango zela zirudienean, batzuek gune hori desegitea eta betiko jazarpen estrategiarekin jarraitzea erabaki zuten, itxaropen guztiak apurtuz.

Guzti hori dela eta, ondorengoa eskatzen diogu Oñatiko udalari:

1. Publikoki tankera honetako epaiketa eta sententzia politikoen aurka agertu dadin, bake eta normalizazio politikoa oztopatu eta konponbidea atzeratu egiten duten heinean.
2. Epaiketa eta sententzia politikoen aurka burutzen diren ekimenak babestu ditzala, soilik herritarron arteko elkartasunak eta borondate politikoak eramango gaituelako horrelako injustiziekin amaitzera.
3. Donostian, Apirilaren 10ean eta 19an Ertzaintzak izan zuen jarrera basatia publikoki salatzea, eta protesta baketsuen aurrean Ertzaintzak bortizkeria erabili ez dezan eskatzea.



OÑATIKO



antolakuntza: independentzia -sozialismoa -feminismoa